ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Esp.kodea:** 2017KKUL0019

**Gaia:** Zeuk iñ zeuk jan bazkarirako arauak onartzea
**Hasiera eguna:** 2017/06/08

**ALKATETZAREN ERABAKIA**
**N17/0813**

San Juan jaien barruan Zeuk iñ zeuk jan bazkarira antolatzeko arauak finkatzea komenigarria denez Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:

Zeuk iñ zeuk jan bazkaria antolatzeko arau hauek onartzea:

## ZEUK IÑ ZEUK JAN BAZKARIA

Eguna: 2017-06-25

Lekua: azoka plaza

Plaza kopurua: 568

Izena ematea: ekainaren 15a goizeko 08:00etatik aurrera, plazak bete arte

Azken eguna: ekainaren 21a

Izena ematea: Udalaren webgunea: www.arrasate.eus/izenemateak

Izena eman ahal izango da plaza kopurua bete arte.

Plaza kopurua betetakoan izenematea itxi egingo da

Azoka plazan lekuen kokatzea zozkatu egingo da

Janaria prestatzeko tresneria: bakoitzak berea eraman beharko du. Derrigorra da ontzi berrerabilgarriak erabiltzea. Mahai tresnak bakoitzak bereak eramango ditu eta berrerabilgarriak izango dira.Udalak behar dutenentzat izango du eskura edalontziak eta platerak.

Udalak su txiki kopuru jakin bat izan dezake: hauek zozkatu egingo dira eskatu dutenen artean

Janaria prestatzea azoka plaza kanpoaldean egingo da hartarako finkatutako lekuan

Azokako auto babes plana bete ahal izateko hauek kontuan hartu behar dira:

. Edukiera mugatua du azokak,

. Larrialdi ihesbide eta igarobide, ate eta guneak ezin dira inolaz ere oztopatu

. Larrialdietarako baliabidek zaintzea eta aholkuak betetzea

. Larrialdi arduradunen esanak betetzea

Adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 legeak 33. artikuluan xedatutakoaren arabera debekatuta egongo da 18 urtez azpiko pertsonek edari alkoholdunak kontsumitzea.

Bazkaria bukatzeko eta jasotzeko ordua: 19:00etan bazkariko material guztiak jasota egon behar dira.

,

Arrasate, 2017ko ekainaren 8a

ALKATEA

María Ubarretxena Cid

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Alkatetza